

JOXE MARI CARRERE. IPUIN KONTALARIA

“Gure lanaren izaera artistikoa eta berezko balioa aldarrikatzen dugu”

Egunero egiaztatzen dute zein balio gutxi ematen zaion ahozko narrazioari. Gauzak hobetze aldera, elkartu egin dira kontalariak. Bakarka aritu ohi da kontu kontari kontalaria; bakarka egin ohi die aurre arazo eta erronkei. Euskal Herrikoak elkartu egin dira berriki: badirela erakusteko; agiri baten bitartez ahozko narrazioaren garrantzia azpimarratzeko; lanerako baldintza duinak behar dituztela gogorarazteko... Ilunpetik irten eta euren jardueraren izaera artistikoa aldarrikatzeko, alegia.

- Ipuin kontalaria ipuinak kontatzen dituen da. Nahikoa al da definizio hori?

- Gure artean ere ez da erraza definizio adostura iristea, baina ez dut uste definizioa beharrezkoa denik. Saio gehienak liburutegietan antolatzen direnez, liburuari lotuta agertzen gara askotan, baina bide askoren erdian gaude. Baditu loturak antzerkiarekin, musika ere erabiltzen dute zenbaitek, txotxongiloak... Azken batean, jarduera artistiko bat da gurea, berezko balioa daukan gauza bat, nahiz eta gero kalte kolateralak jasan...

- Kalte kolateralak?

- Gu deitzen gaituzte irakurketa bultzatzeko, ingurugoaren zaintza sustatzeko eta beste zenbait gauzatarako, baina ez dute aintzat hartzen gure lanak duen berezko balioa. Gurea jendaurrean egiten den jarduera artistiko bat dela aldarrikatu eta ezagutzera eman nahi dugu, gure ahotsarekin. Geu gara protagonistak, eta geuk defendatu behar dugu kontalaritza. Besteak beste, horretarako sortu dugu kolektiboa.

- Bitartekari hutsak izatearen sentsazioa duzue, hortaz. Betegarriak.

- Ez da sentsazioa, horrela da. Badaude oso ondo antolatzen diren saioak, baina beste asko betelan hutsa dira. Hori da, gainera, eskatzen dizutena. Ekitaldien alde sinpatikoa betetzea tokatzen zaigu guri, jakinda askotan zein den eskaintzen den kalitatea, merkeena hartzen baitute. Hori txinoetan erostea bezala da, eta horregatik aldarrikatzen dugu gure lana jardun artistikoa dela, berez duela balioa. Guk ez ditugu ipuinak kontatzen irakurzaletasuna sustatzeko, ingurugiroaz ohartzeko edo emakumearen egunaren inguruko kontzientziazio lana egiteko. Lan artistikoa egiten dugu, sortzaile sena ere baduena, eta sortzaileari ezin diozu esan zer egin behar duen. Berea egiten utzi behar diozu nahiz eta, oro har, kultura geroz eta gauza funtzionalagoa izan.

- Kulturaren inguruko gogoetetan ere ez duzue parte hartzen, ez da aintzat hartzen zuen ekarpena.

- Horrelako gauzak egiten direnean ere, saioa ondo amaitzeko ipuintxo bat konta dezagun deitzen gaituzte, baina ez gogoetan parte hartzeko. Horretara jende inportantea eramaten dute. Elkartzearen beste arrazoietako bat hori da, gu ere kultura gara eta gure txikitasunean hemen gaude esatea.

- Haurrak entretenitzeko ere toki askotatik deituko zaituztete.

- Maiz, eta askotan egiten dugunaren kalitateari erreparatu gabe eta lanerako gutxieneko baldintzak eskaini gabe. Badirudi haurrentzat eta zaharrentzat

edozerk balio duela. Kontaketan gauza kurioa gertatzen da. Behin eta berriro esaten da zein garrantzitsua den haurrentzat ipuinak entzutea, ahozkitasuna lantzea eta hori guztia, baina kontalaritzak, benetan baliagarria izateko, baldintza batzuk behar ditu, eta horiek betetzen ez badira, zertarako diskurtsoak? Guk saioak ondo antolatzea nahi dugu, ez guretzat bakarrik baizik eta, batez ere, etorriko denarentzat. Antolatzaileak horren kontzientzia hartu behar du. Kristoren kaosa dagoen saio batera joaten bazara, ahal duzuna egingo duzu, baina badira gauza onartezinak. Posible ez dena da saio batera joan eta, haurrak entzuten dauden bitartean, gurasoak ikustea telefonoz hitz egiten, umeei merienda ematen... Askotan haurrei leporatzen zaie arreta falta, baina gehien molestatzen dutenak gurasoak dira. Hori jendeak uste baino askoz gehiagotan gertatzen zaigu. Ona edo txarra, lan artistiko bat egiten dugu, eta errespetua merezi dugu; lehenik eta behin, pertsona bezala.

- Helduentzako saiorik antolatzen al da?

- Oso gutxi. Helduentzat ez denez saiorik antolatzen, kontalari askok planteatu ere ez dute egiten eremu horretan lan egitea, eta planteatzen baduzu ez dago non garatu. Une honetan, kontalaritza haurren eremuan lantzen da gehienbat, badagoelako estandar bat. Gazteen eta helduen mundua oso gutxi lantzen da, eta pena da. Zeuk ere, aurrera egiteko, behar dituzu erronkak, zailtasunak...

- Zuen lanari dagokionez, zein pisu du tradizioak?

- Lan egiteko orduan batzuk abiatzen dira tradizioetik, beste batzuk literaturatik, badira euren ipuinak sortzen dituztenak... Nik uste dut, dena den, Euskal Herrian ez dugula kontalari tradizioirik. Ipuin asko ditugu, tradizioa gordetzen eta lantzen jakin dugu, eta kontatu dira ipuinak etxeetan, baina kontalari tradizioirik ez da izan. Agian ibili da jendea herriz herri ipuinak kontatzen, baina egon bada duk ez dugu ezagutu. Gu, azken batean, neokontalariak gara. Lehen ahoz ematen zena liburuetatik hartu eta ahoz eman behar dugu berriro ere. Guk ere, gainera, urte gutxi daramatzagu, hogeitahortei jota, eta gure erronka da asmatzea nola txertatu gaurko gizartean jardun zahar bat berezko izaera galdu gabe. Bertsolariak ondo ari dira bide hori egiten, trikitilariak ere bai... Denek hitz egin dute horri buruz. Orain guri tokatzen zaigu gogoeta egitea.

- Berrikuntza nagusiak, nondik datoz?

- Behar bada eszenaratzetik, kontaketa presentatzeko modutik. Kontatzea ez da testu bat esatea, ez gara irakurle soilak. Ipuina kontatzerakoan gauza asko sartzen dituzu ipuinarekin batera, egoera narratibo bat planteatu behar duzu. Baliabide asko erabil daitezke horretarako, baina askotan ezinezkoa da. Toki eta egoera egokirik ez baduzu, planteatu ere ez duzu egiten. Nik ikusi dut Koldo Amestoy Baionako antzoki batean, eta izugarri landua zen emanaldia, baina horretarako normalean ez dauzkagun baldintza egokiak behar dituzu.

- Toki askotako kontalariak bildu zineten Hondarribian. Antzekoak al dira guztien arazoak?

- Bai, baina euskaraz egiten dugunaren kasuan hizkuntzaren egoera bereizgarria dela esango nuke. Gauza asko geuk sortu behar ditugu, ez daukagulako erreferentziarik. Esate baterako, nola egiten du euskaraz punk batek, nola egiten du pijo batek? Gaztelan badauke estandarrak, baina euskaraz ez ditugu. Gero, Atanen balio duen euskarak ez du balio Portugaleteko institututu batean; euskaldun zaharren seme-alabekin erabiltzen duzunak ez ditu balio euskara bakarra eskolan entzuten duten haur edo gazteekin... Azken batean, hizkuntzaren transmisioa ere badago jokoan gure lanean, eta gauza horietan guztietan aurrera egiteko modu bakarra da elkar ezagutzea, biltzea, eztabaidatzea eta gogoeta egitea. Horretarako sortu dugu Elkarte.